



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**2**

**Nolako txabola!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

## BIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA: "NOLAKO TXABOLA!"

### Sekuentzia tematikoa:

Bidaia: Erdi Arora

Nola zegoen antolatuta Erdi Aroko gizartea?

Nola eta non bizi ziren nobleak?

Euskal Herriko gaztelu, jauregi eta dorretxeak

Non eta nola bizi zen kleroa?

Non eta nola bizi zen herri xehea?

Xakea

Nola sortu ziren gaurko hiriak?

Gure herria gehiago ezagutzen:

Gure herriaren sorrera

Herriaren kokapena eta planoak

Herriko biztanleriaren gorabeherak

Herriko monumentuak ezagutzen

Monumentuak margotzen

Gure etxearen deskribapena, marrazkia eta planoak

Herriko pertsona ospetsuak

Herriko festak

Erakusketaren muntaia

Sintesia

Irtenaldiak

Bisitaldia: gaztelu, jauregi eta dorretxeak

Herriko monumentuak ezagutzen

Ipuinak

- **KONTAIDAZU IPUIN BAT, I eta II.** Talde txikianar Talde txikianalo

- **ALADINO ETA KRISEILU MIRESGARRIA eta ALI BABA ETA BERROGEI LAPURRAK** . Betiko ipuinak saila. ELKAR

### ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Hezkidetza	Emakumea eta behartutako ezkontzak.
Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Joanes eta Naiara. Jauntxoa/artzaina. Klase sozialak. <i>Begiak barrez-barrez</i> abestia. Herri xehearen bizimodua.
Bide hezkuntza	Irteeren planifikazioa.

### EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Ipuina: <i>Joanes eta Naiara</i> Olerkiak Bertsoak Igarkizunak
Ingurumena	Euskal Herriko dorretxe eta jauregiak Euskal Herriko herrien sorrera
Musika eta gorputz motrizitatea	Euskaraz bizi, jolas abestia: <i>Ingurumika</i> Tradiziozko abestia: <i>Begiak barrez-barrez</i> Taldea handian: <i>Atharratzeko gazteluko kanta</i> Entzunaldia: Joanes Antxieta Bestelako abestiak
Arte Plastikoak	Erromanikoa eta Gotikoa Euskal Herrian

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardatzako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoan, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoan, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\*\*\*\*\*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuaren osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango dituzte Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango dituzte baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikusi ditzaten.


## TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 2. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliobideen taula	3	33	
1		Azala behatzea	3	33	
2		Komikia	4-5	34-35	
5		Zer dakizu? Zer jakin nahi duzu?	6	36	
6		Txoko zuria eta proiektua	7	37	
7		Gurasoei eskutitza	7	37	
8		Musika ikasten ari gara	8	38	
8		<i>Erdi Aroko zalduntxo</i>	8	38	
9		<i>Musika lasaiak eta musika biziak</i>	8	38	Musikako lan-koadernoa, 10 or
11		<i>Loa loa</i>	8	38	Musikako lan-koadernoa, 11 or
13		<i>Din dan boieran</i>	8	38	Musikako lan-koadernoa, 14 or
17		Ipuina aitzakia	9	39	
18		<i>Begiak barrez-barrez</i>	9	39	
20		Erdi Aroko gizartea	10-11	40-41	

23		Non eta nola bizi ziren nobleak	12	42	
23		Erdi Aroa	12	42	
28		Berengela erregina	14	44	
28		Berengela erregina	14	44	
31		<i>Alostorea</i>	13	43	
32		Euskal Herriko gazteluak, jauregiak eta dorretxeak	13	43	
32		Euskal Herriko gazteluak, jauregiak eta dorretxeak	13	43	
32		Euskal Herriko gazteluak, jauregiak eta dorretxeak	13	43	
41		<i>Atharratzeko gazteluko kantua</i>	13	43	
42		Entzunaldia (1. maila, 1 ud)	14	44	
43		Entzunaldia. Joanes Anbieta	14	44	
44		Non eta nola bizi zen kleroa?	15	45	
47		Non bizi zen herri xehea?	16	46	
50		Erdi Aroko jendea: ingelesa	17	47	
52		Xakea	18	48	
53		Artelana	19	49	
55		Nola sortu ziren gaur egungo herriak?	20-21	50-51	
56		Beirateak Erdi Aroko beirateak (I) Erdi Aroko beirateak (II)	21	51	

62		Erdi Aroko bizimodua	22	52	
63		Bideoa aitzakia	22	52	
64		Komikia	23	53	
65		Gure herria hobeto ezagutzeko	24	54	
67		Herriaren sorrera	25	55	
67		Viana - Orio	25	55	
71		Herriaren deskribapena	26	56	
72		Gurasoei eskutitza	27	57	
73		Herriko biztanleak lehen eta orain	27	57	
75		Herriko monumentuak	28	58	
78		Gure etxearen marrazkia eta planoak	29	59	
81		Herriko pertsona ospetsuak	30	60	
81		Benito Lertxundi	30	60	
82		Herriko festak	31	61	
85		<i>Ingurumika</i>	31	61	Irakurgaiak 2, 31. or
86		Sintesia	32	62	

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Taldeka, azalari behatzeko jarduera bideratuko dugu. Behatze horiek Talde handian edota talde txikietan (2-3 lagun) txandakaturaz egin ditzakegu. Azalari behatzeko jardueran aurreikuspen-estrategiak landuko ditugu.

- Zer ikusten dugu?
- Zer jartzen du?
- Azala ikusiz, zer-nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?
- Atsegin al duzue gaia? Zergatik?
- ...

## 2. Komikia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Haurrei, banaka, komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu. Ondoren, Talde handian, haurrak girotzeko, irakurketari ekingo diogu:

- Zer dugu orri hauetan? (Komikia).
- Ezagutzen al dituzue azaltzen diren haurrak?
- Non lurreratu da denboraren makina?
- Ezagutzen al duzue gazteluren bat?
- Zer ikusten dute gure lagunak gaztelutik zehar paseatzerakoan?
- ...
- Irakur dezagun, bada.

Binetaz bineta, guztion artean irakurriko dugu. Bigarren irakurketa batean, xehetasunetara joko dugu. Arreta jarraraziko diegu azaltzen diren komikiko hizkuntzaren baliabideetan (harridurak, zurrumbiloa...).

Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu...

## 3. Olerkia

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 18. or.*

Olerkia, irakasleak irakurtzen duen bitartean, haurrei Erdi Aroan kokatzen laguntzeko erabiliko dugu. Erraza ez denez, haurrak talde txikitan antola ditzakegu eta talde bakoitzari zentzu osoa duen olerkiaren zati bat irakurtzeko eta buruz ikasteko eska diezaiokegu. Lan hori burutu ondoren, olerkiak agintzen duen ordenan berriz osatzen saiatu behar dugu guztion artean.

Olerki honetan azaltzen diren pertsonaiak eta egiten dutena erraz imita daitezke. Beraz, olerkia poliki-poliki errezitatzen dugun bitartean, pertsonaiei dagokien jarrerak eta ekintzak imita ditzakegu, eta, era horretan, gorputz- eta keinu-adierazpena landu.

#### **4. Bertsoa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 3. lan koaderno, 14. or.*

Mikel Mendizabalek egindako bertso hau Erdi Aroari buruzkoa da. Lehen, olerkia lantzean komentatu dugun bezala, garai hartan kokatzeko balioko digu. Hurrek bertsoa osatu beharko dute, inguruan agertzen diren hitzak erabiliz.

Lehenik, esanahia eta osaketa Talde handian landuko dugu eta hitzen errimari ere erreparatuko diogu.

- *Zein dela uste duzue errima? Zergatik?*

- *Ezagutzen al dituzue beste hitz batzuk bukaera bera dutenak? Zein?*

- ...

#### **5. Zer dakizu? Zer jakin nahi duzu?**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Hurrek Erdi Aroari buruzko topiko asko ezagutzen dituzte. Beraz, ezertan hasi aurretik, gaiari buruzko aurre-ezagutzak martxan ipiniko ditugu. “*Zer dakizu gai honi buruz?*” galdetu ondoren, hurrek esaten duten guztia idatziz jaso dezaten saiatuko gara. Behin hori eginez gero, zer ikasi nahiko luketen galdetuko diegu, eta erantzunak gure ikasnorabidea antolatzen duen sekuentzia tematikoaren arabera egituratzen saiatuko gara.

Talde bakoitzak erantzun ezberdina emango digunez, agian, unitatearen garapena zerbait moldatu beharko duzue hurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera.

#### **6. Txoko zuria eta proiektua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Gela antolatzerakoan, “txoko zuria” izeneko espazio bat gordetzeko proposatu genizuen. Txoko zuri hori unitate bakoitzaren gaiaren inguruan antolatuko dugunez, oraingo honetan, Erdi Aroko txokoa bihurtuko dugu.

Gaiaren inguruko liburutegi espezifikoak, posterrak, panpinak, bildumak, kromoak, marrazkiak... jarriko ditugu.

Bestalde, unitate guztietan, proiektu moduko bat planteatzen dugu, unitatean zehar lantzen ditugun alderdiak biltzen lagunduko diguna. Gai honetan, zuen herriari buruzko ikerketatxo bat egin ondoren, erakusketa bat antolatzea litzateke egin beharreko lana. Halere, erakusketa antolatzeko dokumentazio asko bilduko duzue, bildutako datuei beste irteera bat eman ahal izateko, aldizkari bat osatzea ere egokia litzateke, erakusketa kentzen denean dokumentatuta gera dadin.

Erakusketa ikastolan egin beharrean, posible litzateke herriko Kultur Etxeko arduradunarekin harremanetan jartzea, bertan aurkezteko aukera dagoen edo ez aztertze eta antolaketan beraien aldetik zer-nolako laguntza izango genukeen jakiteko. Era horretan, gelan egindako lana herriari zabalduko genioke eta haurrentzat erakargarriagoa suertatuko litzateke.



## **7. Txoko zurirako materiala. Gurasoentzako eskutitza**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Txoko zurian jar dezakegunari buruz hitz egin eta bertarako etxetik zer ekar dezakegun idatzi ondoren, gurasoei eskutitz bat bidaliko diegu. Horrelako zerbait izan daiteke:

*Guraso agurgarriak:*

*Ikusten duzuen bezala, ikasturtea hasi bezain pronto hasi gara, berriro ere, gure istorioetan murgiltzen. Oporren ostean, gure laguntxoek denboraren makina puntu-puntuan jarri dute eta dagoeneko lehen bidaia egin dute. Ba al dakizue nora joan diren? Ez? Bada, Erdi Arora!*

*Beraz, hilabete honetan, Erdi Aroaren inguruko gauzak ikusten eta ikasten jarduteko asmoa dugu, eta, horretarako, etxean gai horri buruz dituzuen liburuak, aldizkariak, posterrak, panpinak, etab. zuen seme-alabei ikastolara ekartzen uzteko eskatu nahi dizuegu.*

*Dakizuen bezala, gaia bukatu bezain laster berriro etxera eraman ahal izateko, oso garrantzitsua da gauza guztietan izena eta deitura jartzea.*

*Besterik gabe, zuen laguntzarekin txoko zuria materialez ondo hornituta edukiko dugulakoan, eta oraingoan ere, zuen seme-alabekin batera, Erdi Aroari buruzko gauza asko ikasiko duzelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.*

*Urdintxo eta Pox*

*Hola, familia!*

*Como podéis comprobar, nada más empezar el curso ya nos hemos metido de lleno en nuestras aventuras. Esta vez, nuestros amiguitos han viajado a la Edad Media. Por lo que durante un mes aproximadamente, nos dedicaremos a estudiar este periodo de nuestra historia.*

*Como siempre, mediante esta carta queremos pedir vuestra ayuda. Es decir, que nos mandéis a la IKASTOLA todo aquello relacionado con el tema que tengáis en casa: libros, revistas, posters, muñecos... No os olvidéis de poner el nombre a lo que mandéis para poderlo recuperar.*

*Sin más y agradeciéndoo de antemano vuestra preciada colaboración, nos despedimos.*

*Urdintxo y Pox*

Etxetik ekarritako guztia taldean aurkeztuko dugu, hurrek lortu dugun materialaren erreferentzia eduki dezaten eta gaiaren inguruko informazioa jasotzen has daitezten.

## **8. Musika ikasten ari gara**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. or./CDa/CD-ROMa (Birraitonaren museoa II)*

Imanol Urbietak prestatu digun zalduntxoa eta printzesei buruzko abestia entzun eta ikasiko dugu.

Abestia ikasi ondoren, nahi izanez gero, informatika-gelan, CD-ROMa erabiliz, unitateari dagokion Musika Lantegian, abestia karaoke moduan graba dezakezue, eta ondoren, entzun.

## **Musikako lan-koadernoko jarduerak**

### **9. Musika lasaiak eta musika biziak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 10. or., 2.1. fitxa/CDa, jarduerak*

Musika guztiek ez dute aire berdina. Batzuk oso lasaiak dira; beste batzuk lasai samarrak. Biziak edo eta oso biziak direnak ere baditugu. Ezin kexa gintezke. Egoera bakoitzerako musika mota bat aukera dezakegu. Haurtxo bat lokarrarazteko txaranga baten kalejira bizia ez litzaiguke oso lagungarria suertatuko.

Etixerako lan bat proposatuko dugu: ikasle guztiek izango dituzte etxean kaseteak, diskoak edo CDak. Beraiek aukeratutako bi musika zati ekarriko dituzte gelara. Bi musika zati lasaiak izan daitezke; baita biziak ere. Eta nola ez, bakoitzetik bat ere ekar dezakete. Gelan, musikak ipini eta gelakideek zer motatako musikak diren asmatu beharko dute.

Ahalik eta haur gehienen partaidetza lortu nahi bada, aski izango da musika bakoitzari hamabost edo hogeitaseko tartea eskaintzea.

### **10. DO eta RE nota bihurriak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 11. or., 2.2. fitxa*

Aurreko ikasturteko ideiare jarraituz, noten agerrera pausatu bat egin nahi izan dugu, eta, gainera, ipuintxoak erabiliz, nota bakoitzari “bizitza propioa”, nortasuna, eman diogu. Oraingo honetan, Do eta Re bihurriak aurkeztu ditugu.

Bi nota txantxazale hauek “ordena” hautsi dute eta, ondorioz, gizartetik (pentagramatik) baztertu egin ditugu.

### **11. Loa loa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Banaka/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 12. or., 2.3. fitxa/CDa, jarduerak*

Do eta Re notak erabiliz, kantatxo hau sortu dugu.

Nota berdinak erabiliz, beste erritmo bateko kantatxoak proposatzea komenigarria da. Horrela, notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek.

### **12. Sekuentzia erritmikoak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 13. or., 2.4. fitxa*

Sekuentziak osatu beharko ditu ikasleak. Lau sekuentzia agertzen dira, eta horietako bakoitza lau konpasez osatua dago. Guztira biko neurriko hamasei konpas bete beharko dira. Osagaiak beltza, kortxeak eta beltzaren isilunea dira. Bederatzi konbinazio egin daitezke: beltza, beltza; beltza, isilunea; beltza, kortxeak; kortxeak, kortxeak; kortxeak, beltza; kortxeak, isilunea; isilunea, beltza; isilunea, kortxeak eta, azkenik, bi isilune. Lantxo hori egiteko garaian, baldintza bakarra dute: konbinazio bakoitza bi aldiz baino gehiagotan ez erabiltzea.

### **13. Din dan boieran**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 14. or., 2.5. fitxa/CDA, jarduerak*

Musika aberatsagoak egiteko asmoarekin, Do eta Re notak Mi atezainarengana hurbildu dira. Horrek baiezkoa eman die, eta hiruren artean abesti hau osatu dute.

Nota berdinak erabiliz, beste erritmo bateko kantatxoak proposatzea komenigarria da. Horrela, notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek.

### **14. Jolasa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 15. or., 2.6. fitxa*

Entzumenak argituko digu bidea. Oztoporik gabeko leku zabal bat erabiltzea komeni da. Lehenengo jolasa egiteko, begiak estalita dituzten partaideak txindatak joko dituenarengandik ahalik eta urrunen jarriko ditugu. Aldaera asko sar daitezke: partaideak batera ipini edo eta bakoitza gelaren punta batean. Txindatak erabili ordez beste edozein musika-tresnaz balia gaitzke.

Bigarren jolasean, zenbait musika-tresnaren doinuak nahasian entzungo direnez, diskriminazio-lana askoz ere konplexuagoa izango da. Hasteko, bi bikoteekin has gaitzke, pixkanaka, partaide eta soinu gehiago sartuz joan ahal izateko.

Jolas honen helburua honako hau da: Entzumenaz bakarrik baliatuz, espazioan ibili eta esan zaigun soinu hura aurkitu.

Beste jolas dibertigarri bat proposatzen dizuegu:

- Animalien bikoteak osatu.
- Begiak estali.
- Aukeratutako animalia ibilera imitatu.
- Guztiok mendira joan gara eta, bat-batean, lainoa itsu-itsu sartu da. Ez dugu ezer ikusten eta galduta gabiltza. Animalia bakoitzak bere bikotea aurkitu nahi du (txakurrak txakurkumea, katuak katakumea, oiloak txita, txerriak txerrikumea...).
- Zer egin elkar topatzeko? Oso erraza: bakoitzak bere soinu berezia egin eta, besteen entzunez eta neurea eginez, laster topatuko dut nire bikotea.

Parte hartzen dutenak zuzen ibiltzeko, gainerakok isilik egotea komeni da.

### **15. Ipuina: Joanes eta Naiara**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 19. orrialdetik 22.era; CD-ROMa*

Ipuina irakurtzen hasi aurretik (ez utzi hurrei irakurgaien liburua eskura edukitzen oraindik), izenburuari erreparatuko diogu:

- *Izenburua irakurrita, zertaz arituko dela uste duzue ipuina?*

Izenburua entzunda, garbi ikusten da bi pertsonaia behintzat azalduko direla ipuin honetan. Ipuinaren hasieran, Naiararen deskribapena egiten da (unitate honetan, testu mota hau landu nahi dugu) eta hori aprobetxatuz, hurrek marrazkiak ikusi aurretik, Naiararen deskribapena (nolakoa den) adi-adi entzuteko eskatuko diegu, bere irudia esandakoaren arabera imajinatzeko, ipuina entzun ondoren, eta lan-koadernoko informazioa irakurri ondoren, bere marrazkia egin beharko baitute.

Haurren hipotesiak entzun ondoren, 19. orrialdean agertzen den testua irakurtzen hasiko gara.

- *Ea, bada, zer gertatzen den jakiteko irakurri egin beharko dugu...*

Lehenengo mailan, ipuina irakasleak lasai eta ozenki irakurtzen zion taldeari. Bigarren mailan, tarteka nahi izanez gero, hurrei txandaka pusketaren bat irakurtzeko eskatuko diegu. Halere, irakasleak hurrei irakurtzen jarraitzea garrantzizkoa denez, ez dugu ohitura hori galduko.

Lehenengo zatia irakurri ondoren, hainbat galdera egingo dizkiegu hurrei, irakurritakoaren inguruan hipotesiak egin ditzaten, eta arreta mantentzeko jaulkitako hipotesiak egiaztatzen ote diren behatuko eta partekatuko ditugu... Eta horrela jarraituko dugu orrialde guztiak irakurri artean.

Bukaeran, ipuinari buruz hitz egingo dugu, gustatu ote zaien, zer, zein pertsonaia izan duten gogokoen, ipuinak ezer irakasten ote digun, bukaera egokia iruditu zaien, beste bukaera egokiago bat proposatuko ote luketen... (alderdi horiek guztiak ez dira beharrezko lantzea ipuin bakoitzaren bukaeran, ikusi hurrek nondik jotzen duten eta poliki-poliki hausnarketa-ohitura sortu).

Ipuin hau, CD-ROMean, unitateari dagokion liburutegian jasota dago.

Gogoratu, CD-ROMean ipuina entzuteaz gain, aukera daukagula ikasleak irakurri duena grabatu eta ondoren entzunteko, irakurketa nola egin duen behatzeko. (Ez dauka osorik grabatu beharrik: orrialde bakoitzean pixka bat grabatzea nahikoa da satora jaitsi eta behar duen kodearen zifra bat eskuratzeko).

Beste aukera bat grabaketa talde txikian eta handian egitea da. Ikasle bakoitzak mikrofono aurrean jarri eta esaldi bat irakur lezake. Irakurketa osoa amaitu ondoren, grabaketa beha daiteke, talde txikian edo handian.

## **16. Deskribapenetik erretratura. Hitzetik marrazkira**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 3. lan-koadernoa, 15. or.; CD-ROMa*

Ipuina irakurri aurretik adierazi bezala, Naiararen erretratua egiteari ekingo diogu. Halere, hasi aurretik, elkarrizketa txiki bat garatuko dugu:

- *Zer entzun dugu Naiararen kanpoko itxurari buruz?*

- *Eta izakerari buruz?*

Lan-koadernoa ireki eta, lehenik, deskribatzea zer den irakurriko dugu eta ideiak argituko ditugu.

Ondoren, Naiararen deskribapena irakurriko dugu (ipuinean baino datu gehiago ditugu bertan) eta deskribapenaren hiru atalak (aurkezpena, kanpoko itxura, izaera) bereiziko ditugu.

- *Nola adieraziko genuke, marrazkiaren bidez, pertsona alaia eta ausarta zela?*
- *Eta bihotz onekoa?*
- *Zer-nolako erretratua egingo diogu, gorputz osokoa ala aurpegikoa, ala...?*

Lan-koadernoan erretratua egiteko toki gutxi duzue, bertan aurpegikoa egin ondoren, orri txuri batean gorputz osokoa egin dezakezue. Marrazkiok erakusketan jartzen badituzue, jar ezazue lan-koadernoko orri honen fotokopia bat aldamenean eta DESKRIBAPENA izenburupean kokatu. Ikusleak lan horren xedea interpretatzeko pista onak dira.

Erretratua bukatu ondoren, tartetxo bat hartzen baduzue, hurrek deskribapenaren elementuak plastikoki nola eta zergatik adierazi dituzten ahoz azaltzeari ekin diezaiokete, iritziak eta erabilitako baliabideak partekatzeke.

Orri hau egin osteko elkarrizketan, deskribapeneko **hiru zatiak azpimarratu, aztertu**. Galderen bidez, beherago agertzen dena ondorioztatzera heldu behar dute hurrek.

**Aurkezpena: Ezaugarri nagusiak:** nor den, non bizi den..., pertsonaren aurkezpena egingo duena.

**Kanpoko itxura: Begiek antzematen dutena begirada batean.**

Gorputza orokorrean (altuera, bolumena) eta gorputzaren atalak (burua: ilea, begiak, sudurra definiturik agertuko dira; ilea, begiak sudurra, ahoa... horien neurria, forma, kolorea... Jantzkerak ere zati honetan azaldu behar du.

**Izaera: Pertsona ezagutuz jakiten diren ezaugarriak.**

Azkenik, har dezakegu Irakurgaiak 2 liburua eta gure marrazkiak eta bertakoak alderatu edo, besterik gabe, ikus ditzakegu.

Ipuina bakarka irakurtzeko/ipuinari behatzeko une egokia izan daiteke hau.

CD-ROMean, unitateari dagokion Aitonaren Lantegian, *Nahaspila* jardueran deskribapen-testuak lantzeko ariketak daude. Beraz, gela arruntean jarduera burutu ondoren, une egokia da informatika-gelara joan eta CD-ROMeko ariketak egiteko. Jarduera horiek binaka egitea komeni da.

## 17. Ipuina aitzakia

*Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 9. or.*

Ipuinaren ulermena sendotzeko, asimilatzeke, haur bakoitzak erantzuteke eta taldean eztabaidatzeko galdera batzuk aurkituko dituzue orrialde honetan.

Pertsonaia nagusia dela eta, garbi dago ez dela bakarra (izenburuari begiratu besterik ez dago). Ea hurrek zer dioten. Nolanahi ere, galdera hori erantzun aurretik, hobe zenukete hainbat ipuinen erreferentziak hartzea (*Txanogorritxo, Ahate itsusia, etab.*) eta horietan pertsonaia nagusiaren eta bigarren mailakoen arteko bereizketa egitea. Hurrek ideia garbi dutenean bakarrik eztabaidatzea komeni zaizue ipuin honetakoa.

## **18. Abestia: Begiak barrez-barrez**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Tradiziozko abesti honek kontatzen digunaren eta ipuinean irakurri dugunaren artean zer-nolako erlazioa aurkitzen dugun aztertuko dugu.

Bietan, bikote gaztea dugu, eta guraso bat ez dago, nonbait, harreman horren alde. Bikotea osatzen duen kideetako bat, itxuraz, bestea baino pobregoa da...

*- Zer iruditzen zaigu egoera hori?*

## **19. Joanesen deskribapena**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: 3. lan-koaderno, 16. or.; CD-ROMa*

Urrats bat aurrera eman nahian, deskribatzeko erabiltzen ditugun adjektiboak behatuko diegu. Pertsonak, objektuak, espazioak... nolakoak diren adierazteko erabiltzen ditugun hitz horiek.

Naiararen deskribapenera joko dugu, bertan aurkitzen ditugun hitzak arkatzez biribiltzeko eta elkarri azaltzeko:

*Eder, gazte, gizen, baxu, luze, zoragarri, berde, txiki, dotore...*

Eta horien antonimoak ere aipa ditzakegu (kontrakoa adierazi nahi badugu...)

*Zatar, zahar, argal, garai/altu...*

Ondoren, Joanesen deskribapena osatuko dugu. Lehenik, guztion artean, talde handian eztabaidatuz eta arbelean osatuz. Irakurri egingo dugu ea guztiok ados gatozen. Gero, bakoitzak bere lan-koaderno osatuko du, banaka nahiz binaka jarrita.

Talde handian, irakasleek adjektibo asko eta oso ezberdinak daudela adieraziko die ikasleei, eta denon artean zerrenda bat egitea proposatuko die ikasleei:

*- Gelako kideengan arreta jarritz, saiatu behar dugu kanpoko itxura definitzen duten adjektiboak zerrendatzen. Adibidez, gorputzaren nolakotasuna adierazten dutenak izendatzen hasiko gara:*

### **KANPOKO ITXURA**

Gorputza: Sendoa, gorpuzkera handia...

Neurria: Altua, ertaina, baxua

Bolumena: Lodia, argala, ez lodi ez argal...

Burua: Handia, txikia, luzanga...

- Ilea: Kolorea: gorria, beltza, horia... Forma: kizkurra, leuna, ondulatua...

- Betileak: Iletsuak, argiak, ilunak...

- Begiak: Koloreak: berdeak, beltzak, urdinak, grisak... Neurria: handiak, txikiak... Ezaugarriak: distiratsuak, tristeak...
- Sudurra: handia, txikia, ertaina
- Ahoa: handia, txikia...
- Janzkera: Arropa eta apaingarriak

IZAERA: Alaia, bizkorra, jatorra, bihotz onekoa

Ondoren, adjektiboen zerrenda kartulina batean idatziko dugu eta ipuinen txokoan itsatsiko.

- *Adjektibo berberak erabiltzen al ditugu itxura eta izaera adierazteko?*
- *Orduan, zein da ezberdintasun nagusia? Begiak edo bihotzak antzematea.*

CD-ROMean, unitateari dagokion Aitonaren Lantegian, hainbat deskribapen ageri dira, ordenan jartzeko. Ariketa horien bidez, deskribapenen egitura ikasten saiatuko dira ikasleak.

Bestalde, CD-ROMean, unitateari dagokion sotoan, sinonimoak eta antonimoak lantzeko aukera dago, eta horien artean, hainbat eta hainbat adjektibo daude, testuinguru batean kokaturik, haien esanahia sakon aztertzeko. Baina ez ahaztu sotoko ariketak ezin direla edozein unetan egin. Horiek egin ahal izateko, ikasleak, aldezturik, satora jaisteko beharrezkoa duen kodea lortu behar du.

## **20. Nola zegoen antolatuta Erdi Aroko gizartea?**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Erdi Aroaren hasieran gizartea zer-nolako taldetan zegoen banatuta ikusiko dugu. Talde handian, horri buruz hitz egin ondoren, haurrek, banaka nahiz binaka elkaturik, gizarte talde bakoitzeko pertsonak hurrengo orrialdean agertzen diren esaldiekin erlazionatu beharko ditu.

Eztabaidatu piramidearen ideiarekin inguruan. Era honetan laburbil daiteke: goian, gutxi eta agintzen; behean, asko zerbitzatzen.

## **21. Hitz-jokoak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 23. or.*

Gizarte talde ezberdinetako pertsonaiak ikusi ondoren, Anjel Lertxundik horietako batzuei buruz idatzitako hitz-jokoak irakurtzeko aukera izango duzue.

Lehenik, hurrei banaka irakurtzeko eskatuko diegu, bertan agertzen diren hitz-jokoak ea ulertzen dituzten edo ez kontura daitezten. Segidan, talde handian aztertuko ditugu:

- *Zergatik da Motzaneko markesa bi eta bi zenbat diren igarri ezin duena eta ez Potrojorranekoa?*
- *Eta zergatik dela uste duzue Muturzikineko kondesa sudurretik kandelak eta belarrietan ezkoa duena eta ez Motzanekoa?*
- *Potrojorraneko kalonjea langilea izan daitekeela iruditzen al zaizue?*
- *Zergatik ez diola egia erantzun nahi uste duzue ispiluak erregeari?*

Hitz-jokoak taldean aztertu ondoren, berriro banaka irakurtzeko eskatuko diegu. Olerkiak ez badira ere, txerta ditzakegu gure bilduman edota, motzak direnez, bat edo beste buruz ikasi, etxekoei esateko.

Bertan azaltzen den hitzen bat edo beste, *ezkoa* adibidez, argitu beharra suerta dakiguke. Testuinguruari behatu esanahia argitzen ote digun. Hipotesiak bota ondoren, jo dezagun hiztegiara, bilatu, irakurri, hipotesiekin alderatu eta gure hiztegitxoan idatzi.

## 22. Hitz-jokoa antzeztan

*Lan egiteko era: Binaka*

Bai memoria eta bai gorputz-adierazpena, intonazioa eta ahoskera lantzeko joko hau egin dezakezue:

- Binaka jarri. Bat erregea izango da, eta bestea ispilua.
- Erregeak olerkian dagokion zatia esan behar du, poliki, ondo ahoskatuz, eta hainbat keinu eginez. Bitartean, ispiluak erregeak egindako keinuak imitatu eta errepikatu behar ditu.
- Ondoren, ispiluak bere zatia errezitatuko du, eta erregeari horren keinuak imitatzea tokatuko zaio.

Nahi izanez gero, hona proposamen bat:

Antzezkizunak kamera digitalez grabatu. Ondoren, antzezkizuna behatu. Grabaketak web-guneko zintzilikatu, Ikasleen Txokoa, beste ikastoletako ikasleek ikus ditzaten.

Norbere ikastolan egindako grabaketak behatu eta komentatu ondoren, beste ikastoletako ikasleen antzezkizunak ikusi eta behatu.

Ea ondo-ondo ateratzen zaigun!

## 23. Nola eta non bizi ziren nobleak?

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12-13. or.; CD-ROMa*

Oraingoan, Feudoaren ideia landu nahi dugu. Nekazariak babesaren bila hurbiltzen ziren nobleen gaztelu eta dorretxeen ingurura. Horiei, beraien lurak ustiatzen uzteagatik eta babesa edukitzeagatik, nekazariak errenta ordaindu behar zieten.

Marrazkiari behatu eta taldean aztertu ondoren, haur bakoitzak behealdean agertzen diren galderak erantzun behar ditu. Erantzunak esaldi batez osatzen has daitezten eska diezaiekegu (lehenik, esaldien eraketa ahoz landuko dugu, erantzun motzenetik hasita) eta baita ortografian (esaldien hasieran letra larria...), puntuazioan (esaldia bukatzen dugunean puntua) eta hitz-banaketan arreta jar dezaten ere bai. Adibidez:

- *Zer osatzen zuten nekazarien familia batzuk bizitzeko elkartzen zirenean?*

Erantzun posibleak (landu):

- *Herrixkak.*
- *Herrixkak osatzen zituzten.*
- *Elkartzen zirenean. herrixkak osatzen zituzten.*
- *Bizitzeko elkartzen zirenean. n herrixkak osatzen zituzten.*
- *Nekazarien familia (batzu)k bizitzeko elkartzen zirenean. herrixkak osatzen zituzten.*



Gelako haurren mailaren arabera, zuek erabaki zer progresio landu dezakezuen eta zenbateraino eska dezakezuen.

Bestalde, esaldien osaketan trebatzen jarraitzeko, CD-ROMean, unitateari dagokion Aitonaren Lantegian, Hitzez hitz izeneko jarduera dago. Ohiko gelan lan horretan aritu ondoren, Informatika-gelara joan ,eta hor proposatzen diren ariketak burutu. Gogoan izan, ariketa horren bidez, ikasleak aukera duela satora jaisteko behar duen kodearen digitu bat lortzeko.

#### **24. Nafarroako printzesa, Ingalaterrako erregina**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 24. or.*

Nafarroako Berengela erregina benetako pertsona bat izan zen. Bere istorioa irakurtzean, pelikuletatik ezagutzen ditugun pertsonaietako baten berri izango dugu: Rikardo Lehoiaren Bihotza.

#### **25. Hitz-jokoa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

—Hara! Erregina herrena da.

—Ez iezaiozu herrena denik esan.

—Esango diot.

—Ez zara ausartuko.

—Ausartuko naiz.

—Lepoa galduko duzu.

—Ez dut leporik galduko.

—Erregina, Oiherraren pintore famatuaren koadroa dakarkizut opari.

—Ederra da eta atsegina.

—Bai, erregina!

—Mila esker.

—Ez da ezer.

—Norena da?

—Oiherrarena da, erregina.

(Oi, herrena da erregina!)

Anjel Lertxundi

Haurrak hitz-joko horretaz jabe daitezten azkeneko esaldia bi modutara arbelean idatzi beharko dugu.

#### **26. Hitz-jokoa antzezten**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Anjel Lertxundik asmatutako hitz-joko hori oso-oso aproposa da ahozko adierazpena lantzeko.

Denok batera saiaturako gara ondo adierazten, hau da, esaldi guztiek daukaten zentzua ematen. Beharrezkoa bada, behin eta berriro errepikatuko dugu, olerkiak duen mamia ondo adierazteko.

## **27. Erdi Aroko damaren edota zaldunaren marrazkia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Orri zuri batean, erdi Aroko dama baten edota zaldun baten (ezaguna bada hobe), marrazkia egin dezaten eskatuko diegu ikasleei. Marrazkiari nahi duten izenburua jar diezaiotela, eta erakusketan jartzeko gordeko ditugu guztiak.

Guztien lanak ikusgai jarri gelan, eta haurrak binaka jarri. Bikote bakoitzak berak egin ez duen marrazki bat aukeratuko du, eta besteei zein den adierazi gabe hura deskribatzen hasiko dira. Besteek zein marrazkiz ari diren asmatu beharko dute.

## **28. Berengela erreginareen deskribapena**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

Lan-koadernoan deskribapenak lantzen jardun ondoren, oraingo honetan, Nafarroako Berengela erreginareen marrazkian oinarrituta, haren deskribapena egingo dute hurrek.

Idazten hasi aurretik, komenigarria litzateke ideia batzuk gogoratzea, hala nola zerbait deskribatzean konparazioak egin daitezkeela, kanpoko itxura deskribatzean goitik beherako ordenari jarraitzea egokia eta lagungarria dela...

Egindako lanak zirriborro erara tratatuko ditugu. Guztion artean irakurri eta komentatuko ditugu, bakoitzaren ekarpenak guztion artean balioetsiko ditugu, zuzenduko ditugu...

Bestalde, nahi izanez gero, ohiko gelan deskribapenak landu eta zuzendu ondoren, Informatika-gelara joan eta CD-ROMean, unitateari dagokion Idazketa Lantegian, garbitan ipini eta inprimatu daiteke.

## **29. Aldizkarietatik hainbat pertsonaia aukeratu eta ahoz deskribatu**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Irakasleak hainbat aldizkarietatik moztutako pertsonaiak edo pertsona batzuen argazkiak bildu ostean, talde handian hasieran, eta gero talde txikietan, horien deskribapena ahoz eginez, pertsonaiak asmatzen/deskribatzen jolastuko dugu. Argazki horiek, geroago, ipuinetarako ideiak sortzeko erabiliko ditugu.

## **30. Nik nahi dudana pertsona deskribatuko dut orain**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Lan koaderno, 17. or.*

Paperean lanean hasi aurretik, ahoz errepatatuko dugu deskribapena nola egin (gogoratu ipuinaren txokoan ere erabil dezakegun informazioa badugula), hau da, egituraren ikuspuntutik, adjektiboen ikuspuntutik, ordenaren ikuspuntutik...

Girotzeko edo berotzeko, haurrak binaka/hirunaka antolatu, eta ezkutuan guztiok ezagutzen dugun pertsona bat aukeratu ondoren (egitura bistan eduki), haren deskribapena egingo dute (urretik euren artean adostuta), aurkezpenari dagokion atala adierazi gabe. Besteek asmatzen dutenean, orduan bai, aurkezpena egingo dute.

Hori egiten hasi aurretik, besteekiko errespetuzko jarreraz elkarrizketatxo bat egitea egokia izan daiteke, erabiltzen diren adjektiboak peioratiboak izan ez daitezen.

“Nor da nor?” jokoaren antzekoa ere antola dezakegu, kanpoko itxura landuz, lehenik, eta izaera landuz, ondoren.

Beno, iritsi zaigu, bada, guk deskribatu nahi dugun pertsona (egiazkoa ala fikziozkoa) aukeratu eta lanean hasteko ordua.

Zuzenean egin dezakete lan-koadernoko ariketa, edo eta zirriborroa egin eta berrikusketa garatu ondoren, lan-koadernora garbira pasa.

### **31. Abestia: Alostorrea**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Tradiziozko abesti hau entzun eta, nahi izanez gero, pusketa bat ikasiko dugu.

### **32. Euskal Herriko gaztelu, jauregi eta dorretxeak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.*

Askotan iruditzen zaigu Erdi Aroko errege, zaldun, gaztelu eta printzesen mundu magiko hau ipuinetako eta pelikuletako gauza dela eta, neurri batean hala bada ere, haurrek jabetu behar dute ikusten ari garen Erdi Aroko gizarte hori Euskal Herrian ere eman zela eta ia herri gehienetan aurki ditzakegula nobleak bizi izan ziren gaztelu, jauregi eta dorretxeak.

Orrialde honetan, horietako batzuk agertzen dira, eta horietako bakoitza Euskal Herriko zer herrialdetan dagoen aurkitu beharko dugu. Lan hori egiteko, entziklopedia erabili beharko dute, eta hori nola erabili talde handian landu ondoren, haurrak talde txikietan antolatuko ditugu, bilaketa lana taldetan egin dezaten. Segidan, bakoitzak bere liburuko orrialdea bete beharko du.

Eraikin bakoitza zer herrialdetan dagoen jakiteko, izenetan ematen ditugun pistei jarraitu beharko diete: batzuetan, izena besterik ez dugu jarri; besteetan, eraikina dagoen herriaren izena...

Entziklopediarekin lanean hasi aurretik, elkarrizketa bultza dezakegu, haurrek bilatu behar dutena errazago aurki dezaten:

- *Mendozako dorretxea non dagoen jakiteko, zer hitz begiratu beharko dugu entziklopedian?*
- *“Mendoza” hitza zer tomotan agertuko da? Zergatik?*
- *Agertzen diren “Mendoza” guztiak irakurri behar al ditugu gure erantzuna aurkitzeko?*
- *Nola egin dezakegu hainbeste testu alferrik ez irakurtzeko?*
- *Bakoitzaren lehen lerroa irakurrita nahikoa al dugu jakiteko guk nahi duguna den edo ez?*
- *Abadiñoako Muntzaraz dorretxea zer herrialdetan dagoen jakiteko, zer begiratu beharko dugu, “Abadiño” ala “Muntzaraz”?*
- ...

Dena dela, agian, errazagoa izango da, txanela.net webgunean edo liburu digitaleko baliabideetan eskaitzen den informazioarekin Euskal Herriko gazteluen eta dorretxeen aurkezpena ikustea ikasleekin.

Eskaintzen den aurkezpenean, gaztelu eta dorretxe asko ikusteko eta horien inguruko xehetasun ugari jakiteko aukera dago.

### **33. Bilduma**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Jauregi eta dorretxeak aztertzen hasiak gara, baina gure herrietan garaiko eliza (erromanikoak nahiz gotikoak) ere ikus ditzakegu. Nahi izanez gero, eraikin horien guztien argazkiak bilduma batean txerta ditzakegu, eta bakoitzari buruz hainbat datu idatzi (ez luzatu gehiegi, nahikoa litzateke izena, kokapena eta ezaugarri bat jartzearekin).

Gelan osatutako bilduma baliatuz, irakasleak Power Point edo antzeko programa erabiliz argazki eta datuen aurkezpena prestatuko du irakasleak, eta Ikasleen Txokoan zintzilikatuko du.

Gero, ikastolan prestatutako aurkezpena eta beste ikastoletako aurkezpenak ikusi eta aztertu.

### **34. Letra-zopa**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Lan koadernoak, 18. or.*

Euskal Herrian aurkitzen diren Erdi Aroko dorretxe, gaztelu eta jauregien izenak aurkitu beharko dituzte letra-zopa honetan.

### **35. Bisitaldia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Esan bezala, Euskal Herriko leku askotan daude Erdi Aroko gaztelu, jauregi eta dorretxeak. Zeuen herrian ez badago, bailaran aurki dezakezue horietakoren bat edo beste. Hori dela eta, irteera bat antolatuko dugu herrian edo inguruan daukagun eraikina ezagutzeko eta ahal ditugun datu gehien jasotzeko. Irteera bat egin behar dugun guztietan bezala, xedea argi gera dadila, eta guztien artean argituko dugu bidean nola ibili behar dugun, seinaleei kasu nola egin behar diegun, bidea nondik eta noiz pasako dugun (bide-hezkontza), etab.

Unitatearen bukaeran, gure herriko erakusketa bat antolatu behar dugunez, irteera horretan lortzen duzuen dokumentazio guztia oso ondo etorriko zaizue gerorako. Era berean, komenigarria litzateke haurrek argazkiak ateratzea eta, posible izanez gero, eraikina bideoan grabatzea.

Marrazketa/pintaketa lantzeko ere aukera aproposa dugu irteera. Eraikina osorik ikusten den toki batean kokatu (ezin bada detaile jakin batzuk ere marraz ditzakete) eta zuzeneko behaketa bideratu (proportzioak, solairuak, leihoak, kokapenak, materialen ehundura...), eta haur bakoitzak eraikinaren bere marrazkia egin dezala. Material hori erakusketan dagokion izenburuarekin (guztien artean erabaki) jarriko dugu. Nahi baduzue, haur bakoitzak bere marrazkiari buruz ere zerbait idatz dezake, eta txarteltxo batean eta haren aldamenean koka dezakezu erakusketan (horrelakoetan oso gauza politak jartzen dituzte eta ikuslearentzat oso atsegina izaten da).

Bisitaldia gai horretan jantzita dagoen pertsona batekin egiten baduzue, hobe.

### **36. Zein da printzesaren dorrea?**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Lan koadernoan, 19. or.*

Zaldunak ematen dizkigun pistak arretaz irakurrita, asmatuko al duzue zein den printzesaren dorrea?

Ariketa zaila denez, talde handian egingo dugu.

### **37. Gaztelua eraiki**

Lan-koadernoan dugun gazteluaren irudia oso erraz berreraiki daiteke (4 zilindro, 4 kono eta harresien profilak).

Aurreko ariketaren erantzuna errazago ikusteko aukera ere izan daiteke hainbat haurrentzat. Halere, lehenik, jarduera egitea eta gaztelua eraiki ondoren kontrastatzea aholkatzen dizuegu.

Behin maketa egin ondoren (handi samarra egizue), ingurua eta barrualdea apainduko eta osatuko ditugu unitateak irauten duen bitartean.

Lan horren beste bertsioa (ez da hain ikusgarria, baina haurrek gustura egingo dute) bakoitzak bere gaztelutxo eraikitzea litzateke (erakutsi ondoren etxera eramateko), horretarako, txantilo moduko bat emateak lan handia aurrera diezaioke irakasleari.

### 38. Ipuin literarioa: “Edurne Zuri eta zazpi epotxak”

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

**Oharra:** Jarduera honetan eta ondoren datozenetan ere, ipuina lantzeko sekuentzia bat proposatzen dizuegu. Unitate honetan aurkezteak eta sekuentziaren hainbat atal hemen txertatzeak ez du derrigorrez suposatzen guztia orain egin beharra. Nolanahi ere, aipatzen diren alderdiak kontuan hartzekoak dira, eta noiz landu zuen esku geratzen bada ere, maila honetan, euskarri desberdinetan proposatzen diren hainbat jarduera burutu aurretik, sekuentzia hauek lantzea lagungarria izango zaizuela jakitea komeni da.

Irakurgaietan dituzten testuez gain, beharrezkoa iruditzen zaigu hurrek ipuinak bertsiio literario luze samar batean ere entzutea. Horretarako, unitate honen inguruan hainbat dira aproposak diren eta proposatzen ditugun ipuinak:

- KONTAIDAZU IPUIN BAT, I eta II. Talde txikian.
- ALADINO ETA KRISEILU MIRESGARRIA eta ALI BABA ETA BERROGEI LAPURRAK, Betiko ipuinak saila. Elkar. (Gortea ekialdeko herrietan)

Bigarren unitate honetan proposaturiko tradiziozko ipuin literarioen artean, bat aukeratu eta horrekin loturiko proposamenak luzatzen dizkizuegu. Proposamen hori burutzeak ez du esan nahi beste ipuinak irakurri eta horiekin ulermen estrategiak martxan ipintzeko aukera galdu behar duzuenik, are gehiago, nahi izanez gero, jarduera hori aipaturiko beste edozein ipuinekin, edo, agian, zuek egokiago ikusten duzuen beste batekin ere burutu dezakezue.

Talde txikian, “Kontaidazu ipuin bat” saileko “Edurne Zuri eta zazpi ipotxak” ipuina da aukeratu duguna, Edurne Zuri gaztelu batean bizi baitzen.

Ipuina irakurri aurretik, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu, aurre-ezagutzak eta Tough-en hizkuntza-funtzioak martxan jarritz:

- *Ezagutzen al duzue Edurne Zuriren ipuina?*
- *Inork ba al daki nor den Edurne Zuri?*
- *Ba al zenekiten gaztelu batean bizi zela?*
- *Eta noren alaba zen?*
- *Nolakoa izango zela uste duzue gaztelua? Saiatu deskribatzen edo elementu garrantzitsuenak aipatzen.*
- *Eta nolakoa zen Edurne Zuri? Itxura eta izaera.*
- *...?*
- *Zein beste ipuin ezagutzen duzue printze, printzesa, errege edo erreginaren bat azaltzen dena edo gazteluren baten inguruan gertatzen dena? Ipuinak beste ipuin batzuetako pertsonaia edo elementuekin erlazionatu.*
- *Beno, ipuina ezagutzen dugu, baina orain arreta berezia jar dezazuen eskatuko dizuet, zuetariko bakoitzak lan berezi bat izango baitu ipuina entzuten duen bitartean.*

Hiru taldetan banatuko ditugu ikasleak eta talde bakoitzari lan jakin bat emango diogula adieraziko diegu. Lan hori zertan datza? Bada, arreta berezia jartzean ipuinean, egokitutako ataleko informazio gehiena biltzeko asmoz. Lan horren bidez, sintesi edo laburpena egitearekin batera, ipuinaren egituraz jabetuko dira ikasleak.

Beraz, hiru talde egin eta bakoitzari bere eginbeharra adieraziko diegu:

- Lehenengo taldeak bildu beharreko informazioa: Non gertatzen den istorioa, noiz gertatzen den eta, nor diren pertsonaiak eta nolakoak. Arbelean idatziko ditugu galdera hauek:

**1. HASIERA:**

- \* NOIZ?
- \* NON?
- \* NOR/NORTZUK?

- Bigarren taldeak: Zer arazo (gertakizun) ematen den, zer estrategia erabiltzen duten hori gainditzeko eta aplikazio horren ondorioa zein den.

**2. GERTAERAK:**

- \* ARAZOA
- \* EKINTZAK
- \* ONDORIOA

- Hirugarren taldeak: Nola bukatzen den istorioa.

**3. BUKAERA**

- \* BUKAERAKO EGOERA

Orduan, ipuina kontatzeari ekingo diogu. Ipuina irakurri bitartean, ulermena ziurta dadin, geldiuneak egingo ditugu, galderen bidez, ulertzen ez diren hitzen esanahia denon artean argitzeko edo, behintzat, testuinguruaren arabera interpretazio globala ondorioztatzeko, gerta daitekeen ekintza bati aurre eginez, aurreikuspen estrategiak aplikatzeko, aurrera joan ahala gure hipotesiak ezeztatzeko edo baieztatzeko, inferentziak egiteko (ondorioak ateratzeko), eta nola ez, bada, ikasleen etengabeko arreta geureganatzeko, ipuina hasten denetik bukaera arte, keinuen bidez (begirada, eskuak, gorputz mugimenduak...) edo doinu aldaketen laguntzaz.

Ipuina irakurri ondoren, sintesi-estrategiak jarriko ditugu martxan. Talde bakoitzeko taldekideek komunean jarriko dute bildutako informazioa. Gero, talde handian, taldekide bakoitzeko hizlari batek ahoz adieraziko du bildutako informazioa. Informazio hori sintetizatzen saiatuko gara ahalik eta hitz gutxieneko esaldiak erabiliz.

Irakasleak informazio hori entzuten duen bitartean, idatzi egingo du, arbeleko gidoiari jarraituz.

Adibidea:

**1. HASIERA:**

- \* NOIZ? Behin batean.
- \* NON? Erreinu batean.
- \* NOR/NORTZUK? Errege eta erregina batek Edurne Zuri alaba izan zuten.

Behin batean, erreinu batean, errege eta erregina batek Edurne Zuri alaba izan zuten.

## **2. GERTAERAK:**

- \* **ARAZOA:** Erregina hil egin zen eta erregea emakume maltzur batekin ezkondu zen. Amaordeak, Edurne Zuriren edertasunaren inbidiaz, basora eraman eta hiltzeko agindua eman zuen.
- \* **EKINTZAK:** Morroia errukitu eta basoan utzi zuen Edurne bizirik. Edurnek zazpi epotxen etxea aurkitu eta horiekin gelditu zen bizitzen, baina amaordea enteratu zen, eta Edurne hiltzeko hainbat saiakera egin ostean, azkenean, sagar pozoitsu batekin lortu egin zuen.
- \* **ONDORIOA:** Basotik pasatu zen printze batek Edurne ikusi, maitemindu eta, gaztelura zeramala, sagar puska eztarritik ateraraztea lortu zuen eta Edurne salbatu egin zuen.

## **3. BUKAERA**

Edurne Zuri eta printzea ezkondu egin ziren eta zazpi seme-alaba izan zituzten.

Laburpena egin dugunean, ikasleei ipuina kopiarazi eta irudiak egin ditzaten eskatuko diegu. Arbetetik ipuina kopiatu ostean, ekoizpen estrategiei dagokien hirugarren uneko kodearen zuzenketa martxan jarri asmoz, ikasleak auto-zuzenketa egin dezaten bultzatuko ditugu.

Edizio-lana bukatzeko, testu zati bakoitzari dagozkion irudiak marraztu eta margotu, eta kartulinazko azal polit batzuk jarriko dizkiogu ipuinari.

Ikasleek ipuina etxera eraman dezakete gurasoei kontatzeko edo, nahi izanez gero, txikien geletara joan daitezke eta eurei kontatu ipuina.

Horren ostean, ipuinek egitura jakin bakar bati ez diotela jarraitzen jakinik ere, ikasleei eredu bat eman nahian, ekoizpenerako baliagarria izango zaien eredu alegia, mementoa litzateke, talde txikietan, ekoizpenerako erabiliko duten ipuinaren egituraren eskema kartulinatan idazteko eta ipuinen txokoan itsasteko, behar dugunean erreferentzia bertan izan dezagun.

### **39. Sormena astintzen**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CD-ROMa*

Ekoizpen estrategiak abian, jarduera honekin lehenengo unea jorratzeari ekingo diogu, hau da, ipuin bat garatzeko behar ditugun ideiak sortuko ditugu. Ondoren, ideiak eskema edo gidoi txiki modura antolatuko ditugu, eta azkenik, ipuina ahoz garatuko dugu. Une hau ahoz eta talde handian landuko dugu urte osoan zehar.

Beraz, hasteko, egoera aztertu eta asmoa finkatuko dugu: Zer egingo dugun eta zertarako adieraziko diegu ikasleei.

Edonon aurki ditzakegu ipuin bat egiteko aproposak izan daitezkeen ideiak: etxetik ekarritako argazki batean, aldizkari zein egunkari batetik moztutako argazkian, komiki bateko bineta batean, marrazki batean...



Ondoren, talde handian jarrita, irudi edo argazki bat erakutsiko diegu ikasleei eta denon artean ideiak botatzen hasiko gara: nor izan daitezkeen hor agertzen diren pertsonak/objektuak/pertsonaiak, izen bereziak jarriko dizkiegu, arazoak edo gertakizunak asmatzeari ekingo diogu, horiek saihesteko bideak aurkitu, etab.

Saio bakoitzean nahikoa da bi edo hiru irudiren inguruan lan egitea.

Ondoren, horietatik gehien gustatu zaiguna aukeratuko dugu eta ipuinaren atalak eta azpiatalak kontuan izanik, jaulkitako ideiak gidoi txiki antzera antolatuz arbelean idatziko ditugu.

Bukatzeko, gidoiari jarraituz, ipuina talde handian eta ahoz garatzeari ekingo diogu. Ahoz garatzen ari garen honetan, garrantzi berezia eman nahi genieke, oraingoan, denbora-antolatzaileei. Ikasleek, ohituraz, ekintzen segida “eta gero...” formula komodin bezala erabiliz egiten dute, hori gertatzen bada, aprobeixatu egoera denbora-antolatzaileak aipatzeko, zer diren, zein ezagutzen ditugun, zer funtzio betetzen duten... “Sormena astintzen” izeneko jarduera hau behin baino gehiagotan errepikatuko dugu, ikasleek horren dinamika barneratzearekin batera, sormena gara dezaten eta poliki-poliki ipuinaren egituraz jabetzen joan daitezten.

Unitate honetan, gazteluaren inguruan ibil daitezkeen pertsonaien inguruan egin dezakegu lana, aukera ezin hobe eskaintzen digu Erdi Aroko imajinarioak ipuin fantastikoak sortzeko.

CD-ROMeko Ipuin Lantegia tresna aproposa da talde handian ipuina lantzeko. Hori ikasgela arruntean egingo dugu, ikasle guztiekin.

Talde handian jarduera egin ondoren, Informatika-gelara joan eta, bikoteka, jarduera bera egin. Hori egin aurretik, bikoteek ipuinaren gidotxo prestatzea komeni da.

Ipuina osatu ondoren, inprimatu.

#### **40. Denbora-antolatzaileak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Ipuina ekoizten aritu garen bitartean, denbora-antolatzaileen gaia atera dela aprobeixatuz, horiei lekua egin eta ipuinen txokorako bidea luzatuko diegu.

*- Zer izan daitezkeela uste duzue denbora-antolatzaileak? Zein ezagutzen ditugu? Zertarako erabiltzen dira? Zer adierazten digute?...*

*Aipa itzazue ezagutzen dituzuenak: hasieran, lehenik, handik gutxira, orduan, gero, horren ostean, hurrengo egunean, jarraian, beranduago, azkenik, bukatzeko...*

Ezagutzen ditugunak arbelean idatziko ditugu eta, bakoitza noiz erabil daitekeen argitu ostean, kartulina batean kopiatuko ditugu “Denbora-antolatzaileak” izenburupean eta ipuinen txokoan itsatsiko dugu.

#### **41. Abestia: Atarratzeko gazteluko kantua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Abesti honetan, “Joanes eta Naiara” ipuinean eta “Begiak barrez-barrez” abestian gertatzen denaren aurkakoa aurkezten zaigu. Horrelakoak ere gertatu izan dira, bai Erdi-Aroan baita geroago ere. Hau da, gurasoek alaba maite ez duen pertsona (aberatsago) batekin ezkontzera behartzea.

Hizkuntza aldetik zaila egingo bazaie ere, irakasleak mezua argitu ondoren, eztabaida dezakegu horren inguruan. *Zer pentsatzen dute hurrek? Gaur egun horrela al da? Euskal Herrian horrelakorik gertatzen al da? Beste herriren batean?*

#### **42. Erdi Aroko dantzaldia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa (Txanela 1.1-jarduerak, Entzunaldia)*

Gure txokoan, etxetik ekarritako Erdi Aroa lantzeko material ugari daukagu. Ikaslearen liburuan ere hainbat pertsonaiaren deskribapena landu dugu. Beraz, irudi horiek guztiak kontuan hartuz, gu guztiok Erdi Aroko pertsonaiak bihur gaitzke, eta dantzaldi bat presta dezakegu. Horiek dira eman behar ditugun pausoak:

- Erdi Aroko musika egokia aurkitu, eta dantza erraza asmatu eta entseatu. Begira iezaiozu materialari: CDan. (Lehen mailako 1. unitate didaktikoan proposatzen genuen minueta errepika dezakezue).
- Etxetik materiala ekarri mozorrotzeko. Zapiak, lepokoak, maindireak, gerrikoak, etab.
- Material guztia bildu eta haur bakoitzak hiru gauza-edo hartuko ditu mozorrotzeko. Ez da beharrezkoa goitik behera mozorrotzea, nahikoa da lepoko bat jartzea, edo buruan zapi bat edo... gehiegi konplikatu gabe.
- Denok apain-apain jarri ondoren, musika jarri eta... dantza egin!

Ez ahaztu argazki-kamera edo bideoa eramatea.

#### **43. Entzunaldia. Joanes Antxieta**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Jardueren CDa*

##### **Gure konpositoreen txokoa**

Erdi Aroko gaztelu eta jauregietan erreginek eta printzesek musika asko entzuten zuten, bertatik oso gutxitan ateratzen zirelako eta denborapasa ederra zelako. (Hitz egin dezakezue gai horretaz, musika-tresna eta irratirik ez zegoenez, zuzenean jo edo abestutakoa entzuten zutenaz, etab.).

Entzun behar dugun musika Joanes Antxietaarena da. Beti bezala, gure “konpositoreen txokoa” martxan jarriko dugu, betiko urratsei jarraituz eta, bukatzean, konpositore horren biografia bere argazkiarekin batera “Gure konpositoreen txokoan” zintzilikatuko dugu.

**Antxieta, Joanes.** Konpositore gipuzkoarra (Azpeitia, 1462-1523). Errege Katolikoen eta Karlos I.aren erret kaperau, Joan printzearen eta Joana Eroaren musika-irakasle eta kantore izan zen. Azpeitiko elizan musika herritarra eta bilantzikoak erabili zituen bere lanetan. Musika polifonikoaren sortzaileetako bat izan zen eta hainbat lan erlijioso idatzi zuen. San Ignazio Loiolakoaren osaba zen.

#### **Bisualizazioa-Sentimenduak-Marraskia**

Musika entzuterakoan, gaztelutik inoiz irten gabe eta denbora pasatzeko musika entzuten igarotzen duen printzesa baten istorioa kontatuko diegu hurrei, eta printzesa horrek zernolako sentimenduak izango zituen imajinatuko dugu. Musika bukatzean, haur bakoitzak imajinatutako sentimenduak papertxo batean idatzi eta taldean aipatuko dituzte. Haur gehienek errepikatutakoa aukeratu eta sentimendu hori nola definituko luketen galdetuko diegu hurrei; adibidez, tristura, malenkonia...

Segidan, haur bakoitzak folio batean idatziko du sentimendua eta egoera eta sentimendu hori adierazten duen printzesaren marraskia egin dezake.

#### **44. Non eta nola bizi zen kleroa?**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

Erdi Aroko gizartean kleroaren eragina itzela izan zela adierazi ondoren, gure inguruan monasterioren bat dagoen edo ez ikusi ondoren eta euskaraz idatzitako lehen hitzak Errioxako Donemiliaga Kukulako monasterioan aurkitu zituztela irakurri ondoren, orrialdearen behealdean, diktaketa bat egiteko lekua utzi dugu, gaiarekin erlazioa duen testu bat idatz dezaten. Zeuek diktatuko diezuen esaldia honako hau da:

*Monasterioetan, antzinako liburuak kopiatu eta itzuli egiten zituzten.*

#### **45. Mojaren esaera**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 3. lan koadernoan, 20. or.*

Soineko beltza duen mojak hasi eta mojek eskuekin azaltzen duten aurkako norabideari jarraituz, esaera zahar bat irakurri ahal izango dute hurrek. Esaera zaharra deszifratu ondoren (*Santa Luzi, gaua moztu eta eguna hazi*), horren esanahiaren inguruko elkarrizketa bultza dezakegu.

Nahi izanez gero, eta egoera aprobeztatuz, txikitatik ezagutzen dituzten esaera zaharrak gogoratuko ditugu.

#### **46. Ba al zenekien?**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 25. or.*

Esaldi horiek arretaz irakurriz gero, garai hartako nekazariei buruzko gauza asko eta asko ikasiko ditugu.

#### **47. Nola bizi zen herri xehea?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.*

Irakurgaietan irakurritako esaldietan oinarrituz, liburuan agertzen direnek egia ala gezurra dioten erabaki beharko dute ikasleek.

#### **48. Txisteak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 26. or.*

Irakurgaietan agertzen diren txisteek gaiarekin erlazio zuzena dute. Lehenik eta behin, bakarka irakurtzeko eskatuko diegu hurrei, ea txiste guztiak ulertzen dituzten jabetzeko. Geuk ozenki irakurri ondoren, eta hiru txisteetan narratzailea eta bi pertsonaia agertzen direnez, haurrak binaka/hirunaka (txistearen arabera) taldekatuko ditugu, txiste bat aukeratu eta antzez dezaten.

#### **49. Hitzen bidezko komunikaziozko joko kooperatiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Hasteko, elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *Nola zabalduko zirela berriak uste duzue Erdi Aroan? Bai, ahoz aho, eta, agian, arriskuaren arabera, abiada bizian mezua igorri eta alde egin behar izaten zuen mezulariak bere bizia arriskuan ez jartzeko.*
- *Baina horrek izango zuen, bada, arriskuren bat, ezta? Bai, mezua eraldatuz joango zen eta, agian, hasiera batean zuen forma galdu eta zeharo ezberdina zen berria helduko zen.*
- *Hori da, azken batean, berria berri egingo zen; ikusiko al dugu bertatik bertara, joko baten bidez, nola ematen den eraldaketa hori?*

Gela guztia korro handi bat eginez lurrean jesarriko da. Txotx egingo dugu eta hastea egokitu zaion pertsonak bere eskuinean duenari belarrira esaldi bat esango dio, baina abiadura handian. Mezua entzun berri duenak, ulertu duena eskuinean duenari belarrira esan beharko dio, eta horrela jarraituko dugu mezua azken jokalariairengana heldu arte. Orduan, jokalaria horrek mezua ozenean esan beharko du, eta lehenengo jokalaria jatorrizko mezua zein izan den esango du.

Komenigarria izaten da joko hau hamabost ikasle baino gutxiagorekin egitea; beraz, ikasle kopuru handia baduzue, bi taldetan bana dezakezue gela.

Joko horretan behin baino gehiagotan jolastu ondoren, ikasleekin elkarrizketa sortuko dugu, pertsonen arteko harremanetan sarri gertatzen den fenomeno hausnartuz, hau da, esaten dugunaren eraldaketa pertsona batetik bestera ahoz aho igarotzean, eta horrek dakartzan ez-ulertuak, haserreak, etab.

Bukatzeko, saiatuko gara ondorioztatzen ez-ulertuak eta haserreak daudenean horiek saihesteko biderik errazena eta egokiena komunikazioa dela, lagunekin gertatutakoari buruz hitz egitea eta kontuak argitzea.

**50. Ingelesa. WHAT DO YOU KNOW ABOUT PEOPLE IN THE MIDDLE AGES? Zer dakizu Erdi Aroko jendeari buruz?**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.*

Ingeleseko jarduera hauek euskaraz aurretik landutako kontzeptuak berrikusi eta indartzeko asmoa dute. Erdi Aroko gizartearen hainbat estamentutako jendeari buruz hitz egingo dugu, erregetik hasita, laborari eta zerbitzariarekin bukatzeko.

Kontzeptuak aurkeztu badira ere, euskaraz, haiei dagokien hiztegi gehiena berria izango da ingelesez. Helburua ez da hiztegi hori behin betiko guztiz ikastea, baizik eta jolasa egiteko eta gaiari buruz hitz egiteko erabiltzeko gai izatea, besterik gabe.

Beti bezala, ikasleei galdetu zertan ari diren lanean, eta egin dituzten lanak edo eta txokoetan duten materiala erakusteko eskatu. Ondoren, liburuxka hartu eta dagokion orrialdeari behatu, (17. or.) Reddy'k dioena aztertuz.

*What is Reddy saying? 'Let's Play a dice game'. And what's a dice or (die)? O.K. so we're going to play a game with the dice. First we have to look at his chart and fill in this missing column. In the first column, what do we have? Yes, numbers from 1 - 6 like the dice.*

In this column, what can you see? Yes, people. A king, repeat 'king', a knight, yes it says 'knight' but we say 'nait' etc. Now what can you see in this column? Yes, places; a castle, we say 'kasel' etc.

*So we have people and places, so what can we put in this empty column? Yes, these things in the pictures around the chart. What have we got? A 'horse', a 'pig', a 'book', etc.*

*Now look at number one, we have a 'king' in a 'castle' with a ... With a what? What do you think the king has? Yes, a crown. **A king in a castle with a crown.***

*Now look at the other pictures. Where would you put them?*

Utzi denbora pixka bat ikasleek haien kabuz pentsa dezaten. Orduan, bere kasa hasiko dira egindakoa lagunekin konparatzen. Eztabaidan ari direla, bultza itzazu eskainitako egitura erabiltzera, adibidez:

*A lady in a house with a book? Do you agree?*

Taula osatzen dutenean, berrikusi talde handian, aukerak aztertuz:

*What did you put for number 5, Maider? 'The peasant in a hut with a book'? Do you think the peasants had books? Do you think they could read? Etc.*

Taula beteta dagoenean, jolasa egingo dugu. Ikasle pare bat hartu eta jolasaren eredu eman.

*We are going to play with the dice to try and collect three elements in a row. E.g. the king, The castle and the crown. We are going to take it in turns to throw the dice. I start and I throw a four. What do I have in the four line? Yes, a 'monk' and a 'monastery' and a 'book'. So I can cross out one of them. I'm going to cross out the monk. Now it is Iker's go. Iker throws a two. What are you going to cross out Iker? Iker says: I'm going to cross out the horse. Etc.*

*I need to get a four two times more to get the whole line: A monk in a monastery with a book. Iker needs to get two twice more to get the whole line: A knight in the forest with a horse.*

Ikasleek hiruko lerroak gurutzatzea lortu behar dutela ulertzen dutenean, talde txikitan (hirunaka edo eta launaka) jarri. Denbora mugatua eman, ea zuk gelditzeko esan arteko denbora horretan zenbat lerro gurutzatzea lortzen duten.

Ikasle gehienek gutxienez lerro bat lortu dutela ikusterakoan, jolasa gelditu eta emaitzak eskatu:

*Who got one row? Who got two rows? Did anybody get three rows? Etc.*

*Who got row number one? Aitziber, good, can you tell us what you got with the ones?*

(Eredua orrian bertan dago.) *O.K. A king in a castle with a crown' etc.*

### **51. Azalpen testua: xakea**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 27. or.*

Irakurgaietan xakearen inguruko azalpen-testua aurkituko dugu irakurtzeko. Hasieran, haurrak binaka taldekatuko ditugu; bien bitartean, testua irakurri eta ulertzen ez dituzten hitzak orri batean idatzi eta, ondoren, guztion artean esanahia argitzen saiatuko gara, zalantza dugunean edota zerbait ziurtatzeko, hiztegian begiratuko dugu.

Segidan, taldean ozenki irakurriko dugu, norbaitek zerbait ulertzen ez badu denon artean argitzeko, eta bukaeran, banaka irakurtzeko eskatuko diegu.

### **52. Xakea**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

Orrialdean agertzen den jarduera egin aurretik, taldean xakean jolasten zeinek dakiten galdetuko dugu. Jolasten dakitenek jolasten ez dakitenei piezak nola kokatzen diren eta bakoitzaren mugimenduak nolakoak diren esplikatuko diete: nola mugitzen den, nola jan dezaketen, noiz komeni den jatea eta noiz ez...

Taldean landu ondoren, 18. orrialdean agertzen den jarduera egiten hasiko gara.

Xakearen nondik norakoak ikasi ondoren, nola ez, jolasteko garaia iritsi da. Guztiek parte har dezaten bermatu. Xakean jolasten ikasi egiten da!

### **53. Artelana**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19. orrialdea*

Bayeuxeko tapizak Erdi Aroko bizimodua adierazten du.

Artelanari behatu ondoren, behealdean agertzen den testua irakurriko dugu, eta bertan agertzen diren datuak denon artean komentatu eta tapiza errealitatean nolako izan daitekeen imajinatzeko neurriak hartu ditugu. Ondoren, entziklopedia erabiliz, “tapiz” bat zer den eta “Bayeux” hiria non dagoen aurkitzeko eskatuko diegu hurrei. Horretarako, binaka jartzeko eskatuko diegu.

#### **54. Guk ere gure tapiza eraikiko dugu**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka*

Talde txikitan nahiz bakarka, nolahalako tapizak eraikitzeke aukera jorratuko dugu. Erabil ditzakegun tekniken artean bideragarrienak direlakoan, bi proposatuko ditugu, zuek aukera ditzazuen:

- Oihal puskak josiz/erantsiz “estandarte” moduko irudi baten eraikuntza egin. Betiere, hurrek, aurretik, oihalak eskura dituztela, eraiki nahi dutenaren diseinu txiki bat eginda. (Zenefa eta marrazki geometriko desberdinen ereduak eskaini eta aztertu aurrez).
- “Gurutze puntua” egiteko erabiltzen den zulo zabaldu oihal zatiak banatu hurrei, bertan aurrez diseinatutako marrazkia (elementu geometriko eta zenefa sinpleen konposaketa landu aurreko proposamenean bezala) bertan markatu, eta “puntu erdia” deritzon bordatu teknikaz osatu irudia.
- Bastidorean hari eta oihal desberdinak erabiliaz ohiko tapiza ere eraiki dezakegu.

#### **55. Nola sortu ziren gaur egungo herriak?**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. eta 21. or.*

Gaurko hiriak nola sortu ziren garbi ikusteko, elkarrizketa bultzatuko dugu, erromatarren garairaino joanez eta erromatarren garaitik Erdi Aroraino zer gertatu zen komentatuz. (Ikus bideoa).

Dakizuen bezala, erromatarrek hiriak sortu eta bultzatu zituzten merkataritzarekin batera. Iparraldeko herrien inbasioak eta erromatarren inperioaren gainbehera gertatu zenean, jendeak hirietatik ihes egin zuen, inbasioen beldur baitzen. Horren ondorioz, merkataritza ia desagertu egin zen eta nekazaritza eta abeltzaintza indartu ziren. Jendea mendian banatuta bizitzen hasi zen, ahal zuen lurra ustiatuz. Banatuta bizitzean, babesik gabe aurkitzen zirenez, pixkanaka, nobleen eremuetara hurbiltzen hasi ziren, horien babesaren truke beren zerbitzura lan egiteko. Nekazariak nobleen gazteluen inguruan kokatzen hasi zirenean, herrixketan bildu eta feudoak sortu ziren. Feudotik hiribildurako prozesua da orrialde honetan ikusiko duguna.

*- Erromatarren garaia ikasi genuenean, ba al zegoen herririk Euskal Herrian?  
Gogoratzen al dituzue batzuk?*

*- Zergatik desagertu zirela uste duzue erromatarren hiri gehienak?*

*- ...*

Hiribilduaren marrazkiari behatu ondoren, Feudoa eta hiribildua alderatzeko eskatuko diegu hurrei: harresiak, etxeak non kokatzen ziren, harresi barneko kaleak, eliza motak... Taldean eztabaidatu ondoren, haur bakoitzak horietako bakoitzaren ezaugarri batzuk idatzi beharko ditu.

Ondoren, haurrak bertan agertzen diren galderak erantzuten saiatu behar dute.

## 56. Beirateak egiten

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Bideoa, CD-ROMa*

Hirietan, egitura gotikoa duten elizak aurki ditzakegu, eta horietan erraz aurkituko ditugu hainbat beirate. Irtenaldi bat egiteko aukera baldin baduzue, beirateei ongi behatu haurrekin: argia, kolorea, formak...

Gelara etortzerakoan, bi teknika proposatuko dizkiegu haurrei beirate horiek gogoratzeko:

- Argizarizko margoekin: forma, argia eta kolorearen banaketa landu.
- Kartulina beltza zulatu eta zelofanezko koloreetako paperekin gardentasunari eta argiari behatu.

Bideoan (ikus 62. jarduera), hainbat eraikuntza erlijioso ikusi ahal izan dugu. Batzuk erromanikoak, besteak gotikoak. Gai honetan ez dugu sakontzeko denbora, ziur aski, edukiko; nolahi ere, Erdi Aroko eraikinen bilduma egitea erabaki baduzue, bertan txerta ditzakezue horiek.

Ohiko gelan bideoa ikusi eta landu ondoren, CD-ROMa erabiliz, bikoteka, eduki bera landu dezakete ikasleek. Horretarako, Irformatika-gelara joan eta ikasleak binaka jarriko ditugu, eta CD-ROMean bideoaren laburpena ikusi eta gero, jarraian agertuko diren galderei erantzun diete.

Jarduera horrekin satora jaisteko behar duten kodearen beste digitu bat lortuko dute.

Bestalde, interneten web orri ugari dago gai horren inguruan. Horietara joaz, ikasleekin beirate edo bidriera asko ikusteko aukera dago.

## 57. Kanpaiak. Joko kooperatiboa

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

- *Gure herria aztertzen ari garen honetan, konturatuko zineten herri guztietan eliza bat gutxienez badagoela, ezta?*
- *Baina ba al dakizue eliza guztiek goiko aldean zer duten? Kanpandorrea.*
- *Eta zergatik ematen zaio kanpandorreari izen hori? Kanpaiak dituen dorre bat delako.*
- *Eta zertarako erabiltzen ziren edo dira kanpaiak? Noiz jotzen dira? Beti jotzen al dira berdin? Eta ordu berberan? Denak izaten al dira neurri berekoak?*
- *Neurriak izango al du zerikusirik ateratzen duten soinuarekin?*
- *Nolako soinua aterako du handia den batek? Eta ertainak? Eta txikiak?*
- *Beno, bada, jar gaitzen korro batean eta jolas gaitzen kanpaiak izaten!*

Hasteko, hiru talde egingo ditugu. Lehenengo taldea kanpai handiena izango da; bigarrena, kanpai ertainena; eta hirugarrena, kanpai txikiena.

Kanpai handiek eskuak gerrian ipiniko dituzte eta gerriaren bidez, aurrera eta atzera mugituko dira, beheantze egiten duten bakoitzean “tan” esango dute.

Ertainek ere gerriarekin egingo dute mugimendua, baina ezkererantz eta eskuinerantz, eta horiek “tin (ezkerrean)-tan( eskuinean)” esango dute.

Kanpai txikiak burua besterik ez dute mugituko, ezker-eskuin eta esango dute: “tin-tin”(ezkerraldean) eta “tin-tin”(eskuinaldean).

Kanpai handiek “tan” egingo dute jaisterakoan eta ez dute ezer esango igotzerakoan; ertainek “tin” esango dute tenpo batean eta “tan” bestean.

Kanpai txikiak, berriz, “tin-tin” burua alde bakoitzerantz mugitzean.



Lehenengo eta behin, talde osoak entseatuko ditu kanpai guztiak; gero, talde bakoitzak bere kanpaiaren soinua entseatuko eta koordinatuko du.

Horren ostean, kanpai guztiak batera joko dute: lehenengo handiak jotzen eta mugitzen hasten badira, ertainak gehituko zaizkie ondoren, eta txikiak geroxeago.

Joko horrek badu zailtasun-maila, baina horrek ematen dio puntua. Bukatzean, eztabaida sor dezakegu, koordinazioa hizpide, talde handi baten partaidea izateak suposatzen duena adierazteko, ez baita nahikoa bakoitzak egindako lana, bestena ere geurearekin batera kontuan izatekoa baita, helburu bakarra eta bera lortzeko.

## 58. Bertsoa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 28. or.*

Feudotik hirirako prozesua agertzen duen bertsoa irakurri, aztertu eta abestuko dugu.

- *Ulertzen al duzue bertsoak adierazten diguna? Zer dio?*

- *Zein dira bertso honetako oinak? Ezagutzen al dituzue errima bera duten hitz gehiago?*

- ...

## 59. Gurutzegrama

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 3. lan koadernoan, 21. or.*

Hiribildu batean aurki zitezkeen elementuei buruzko gurutzegrama duzue honako hau. Beheko hitzei erreparatu, erraz asmatuko dute.

## 60. Berria

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 29. or.; bideoa, CD-ROMa*

Azken urte hauetan Euskal Herriko herri askotan Erdi Aroko festak antolatzen hasi dira. Irakurgaietan agertzen den berria Artziniegan (Araba) egiten duten festaren ingurukoa da. Berria irakurtzen hasi aurretik, taldean herriaren egiturari buruzko behaketa bultzatuko dugu:

- *Zein da izenburua? Nola dago idatzita?*

- *Zer agertzen da argazkiaren azpian?*

- *Nork idatzi du berri hau? Non?*

- ...

Azokari buruzko hainbat xehetasun bideoan (ikus 62. jarduera) ere ikus ditzakezue. Berrian irakurritakoa eta bideoan ikusitakoa aldera ditzakezue (berdintasunak-ezberdintasunak).

Ohiko gelan bideoa ikusi eta landu ondoren, CD-ROMa erabiliz, bikoteka, eduki bera landu dezakete ikasleak. Horretarako, Informatika-gelara joan eta ikasleak binaka jarriko ditugu eta CD-ROMean bideoaren laburpena ikusi eta gero, jarraian agertuko diren galderei erantzungo diete.

Jarduera horrekin, satora jaisteko behar duten kodearen beste digitu bat lortuko dute.

## **61. Testua berridatzi**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 3. lan koadernoan, 22. or.*

Hiribilduei buruzko testu hau berridatzi beharko dute haurrek, beheko hitzak erabiliz.

Hitz bakoitza dagokion lekuan txertatzeko jarduera gehiago CD-ROMeko sotoan aurkituko dituzue.

## **62. Bideoa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Bideoa*

Erdi Aroko bideoan garai hartako bizimoduari dagozkion hainbat alderdi ikusteko aukera izango dugu (gazteluak, merkataritza...).

Euskal Herriko herri gehienak Erdi Aroan sortu zirela ikusi ahal izango dugu, eta haien ezaugarri, eraikin eta elementu batzuk aztertuko ditugu.

Ohiko gelan bideoa ikusi eta landu ondoren, CD-ROMa erabiliz, bikoteka, eduki bera landu dezakete ikasleak. Horretarako, Informatika-gelara joan eta ikasleak binaka jarriko ditugu, eta CD-ROMean bideoaren laburpena ikusi eta gero, jarraian agertuko diren galderei erantzun diete.

Jarduera horrekin, sotora jaisteko behar duten kodearen beste digitu bat lortuko dute.

## **63. Bideoa aitzakia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.*

Bideoan ikusitakoaren arabera, haurrek adierazi beharko dute orrialde honetan agertzen diren esaldiak gezurra ala egia dioten.

Gezurra dioten esaldiak identifikatu ondoren, horiek berridatzi egin beharko dituzte, egiazkoak bihurtuz.

## **64. Bueltako komikia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.*

Hasieran, haurrek beren kabuz irakur dezatela. Zer ulertu duten aztertu ondoren, taldeko irakurketa egingo dugu. Segidan, berriro bakarka irakurtzeko esango diegu.

Oraingoan, pertsonaiak errones gisa agertzen dira. Erronesen eta Donejakue Bidearen gaia ez dugu aztertu, unitateak luzeegi jo zezakeelako. Halere, Donejakue Bidearen inguruan bizi zirenak gai hori ukitu nahiko bazenute, oraintxe duzue aukera.

## **65. Gure herria gehiago ezagutzen. Erakusketarako materiala**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.*

Gure lagunek bidaiatik museorako ekarritako kopa ikusi ahal izango dugu. Segidan, gure herria gehiago ezagutzeko pertsonaiek proposatzen diguten eskema aztertuko dugu. Luzeegia suerta dakizuekeenez, antola zaitezte zeuen erara. Erabakitako eskema erakusketa egiteko ardatza izan daiteke. Bestalde, lortzen duzuen dokumentazio guztia erakusketa bukatzen denean gorde ahal izateko, adostu dugun eskema berdina erabiliz, formatu txikian berregin dezakezue. Denboraz eginez gero, erakusketara doazenei banatzeko kopia batzuk presta ditzakezue.

Erakusketa non, noiz eta nola egin aztertuko dugu denon artean.

Horrelakoak, normalean, ikastolan bertan egin ohi ditugu, baina gaia herriari buruzkoa denez, hasieran esan bezala, oraingo honetan, herriko Kultur Etxean egiteko aukera aztertzea egokia litzateke.

Animatuko bazinate, lehen pausoa Kultur Etxeko zuzendariarekin hitz egitea litzateke, zeuen proposamena onartzen duen edo ez jakiteko eta, baiezeko erantzuna balitz, datak, propaganda eta lan-ildoak zehazteko.

## **66. Datu-bilketa. Irteera**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Lanaren eskema taldean onartuta daukagunez, datuen bilketa egiteko garaia da. Nora joan gaitzke datu horiek lortzera?

(Udaletxera edo Kultur Etxera edo herriko historialari batengana edo Aurrezki kutxetara —normalean, herrietako argazki zaharren bildumak izaten dituzte—.

Batetik eta bestetik lortutako dokumentazio guztia gelan sailkatuko dugu: argazkiak, planoak, posterrak...

## **67. Herriaren sorrera**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.*

Bildutako datuekin, haur bakoitzak bere liburuaren orrialdean agertzen diren galderei erantzungo die eta eskatzen diogun herriko armariaren marrazkia egingo du.

Era berean, taldean, datu horien inguruan erakusketan jartzeko panelak osatu beharko ditugu. Panel bakoitza kartulina batean egin dezakegu: noiz sortu zen eta zergatik, zein erregeri esker fundatu zen, errege horren biografia, herriaren izenari buruzko datuak, armariaren marrazkia eta armariaren esanahia.

Lanaren eskema taldean onartua dugunez, datuak biltzeko garaia da. Nora joan gaitzke datu horiek lortzera? (udaletxera edo kultur etxera edo herriko historialari batengana edo aurrezki kutxetara; askotan, herrietako argazki zaharren bildumak izaten dituzte).

Batetik eta bestetik lortutako dokumentazio guztia gelan sailkatuko dugu: argazkiak, planoak, posterrak...

Informazio hori guztia eskuratzeko modu aproposa Internet erabiltzea da, ia udalerrri gehienek baitute web-orri ofiziala, non euren historia jasotzen den. Lotura-estekak atalean, Vianako eta Orioko web-orri ofizialen estekak dituzue, adibide gisa.

Bestalde, beste web-orri interesgarri ugari aurki daiteke gure herriaren informazio jasotzen dutena: planoak, eraikuntzarik ezagunenak, armarriak, argazki zahar eta berriak... Ikasleak Internet ezagutzen hasteko une aproposa izan daiteke.

## **68. Armarria paper pastaz**

Egunkari zaharrak eskuratu, pusketa txikitan zatitu eta balde handi batera bota. Ura gehitu, beratzen utzi eta ore bat egin, sobera duen ura kenduta. Orea homogeneo samarra denean, har ezazue kola zuria eta nahasi orearekin. Prozesua erraztu nahi baduzue eta, ziur aski, emaitza txukunagoa lortu, hain ekologikoa ez bada ere, egunkari papera erabili beharrean, komuneko papera erabili.

Okume txapa erabiliko dugu lana eraikitzeke (neurria lortu nahi duzuenaren arabera moztu). Txapa gainean, kontu handiz, armariaren marrazkia egingo dugu arkatzez. Hori egin ondoren, baldean prestatu dugun orea, poliki-poliki, marrazkiaren ertzak kontuan hartuta, itsasten hasiko gara. Armarriaren zati batzuei bolumen handiagoa eman behar zaie besteei baino. Gustuko emaitza lortzen duzuenean, utzi ondo lehortzen.

Behin ondo lehortzen denean, tenperak erabiliz, dagokion koloreekin margotuko dugu. Tenpera lehortzen denean, kola zuriz edo bernizaz gainetik pasako dugu, bukaera on bat emateko. Gure artelana, noski, erakusketan jarriko dugu.

## **69. Igarkizuna / hitz-jokoak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 30. or.*

Irakurgaietan, herriaren inguruko igarkizun bat eta izenekin jolasteko proposamena aurkituko dituzue. Ea herrien izenekin xeblekeria batzuk asmatzen dituzten!

## **70. Herriko planoak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Lortutako planoak aztertuko ditugu. Planoekin hainbat joko egin ditzakegu, haurrak horien irakurketa nola egiten den ikas dezaten:

- Herriko eraikin edo leku ezagunenak aurkitu eta izendatu: eliza, udaletxea, enparantza, ikastola...
- Haur bakoitzari herriko planoen fotokopia eman A3 orrian, bere etxea aurki dezan eta ikastolarako bidea planoan adierazi.
- Herriko bi puntu eman eta batetik bestera joateko bide motzena zein den adierazi.
- ...

Erakusketarako, herria nolako ingurunean kokatzen den agertzen den plano bat eta herri-erdiguneko beste plano bat prestatuko ditugu.

Nahi izanez gero, herri-erdiguneko planoan, herriak zer-nolako forma duen aztertuko dugu. Erdi Aroan hiru forma tipiko omen zeuden: erregularra, obalatu eta hiruki formakoa. Non kokatuko genuke gure herria?

Herriko eraikinen eta lekuen argazkiak eta marrazkiak erabiliz, collagearen moduan, herriko plano-maketa eraikiko dugu. Ikastolaren argazkia itsatsi ondoren, bertatik sortzen diren kaleak zein diren, kale horietan dauden eraikin ezagunen argazkiak edota bolumentean eraikitako elementuak ere itsatsi. Udaletxearen argazkia, elizarena, kiroldegia, hondartza, ibaia, zubi zahar baten argazkia/profila ibaian kokatu...

Elementu horiei bolumenta emateko, hainbat neurri eta formatako kartoizko kaxak erabiliko ditugu, eraikin bakoitzaren eitearen arabera, ertzak, etab. moztuta edota itsatsita.

## **71. Herriaren deskribapena**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.*

Herriaren kokapenari buruzko hainbat galdera erantzun beharko dituzte hurrek. Azpialdean, beraien kasa egindako herriko plano marraztu beharko dute.

Erakusketarako, herriaren kokapena eta inguruan dauden mendi, ibai eta errekei buruzko panelak egingo ditugu.

## **72. Gurasoentzako eskutitza**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Gurasoek erakusketaren berri “ofizialki” izan dezaten eta etxean dituzten herriko argazki zaharrenen fotokopiak bidaltzeko eskatzeko, eskutitza idatziko diegu. Honen antzeko zerbait izan daiteke:

*Kaixo, adiskideok:*

*Dagoeneko jakingo duzuenez, hemen ari gara denok, jo eta su, lanean, zuen herriari buruzko erakusketa prestatzeko asmoz. Gure super-makina erabiliz, Erdi Aroraino joan ginen eta, garai hartako gauza asko ikasi eta ikusi ondoren, Euskal Herriko herri gehienak garai hartan sortu zirela ohartu ginen.*

*Hortik abiatuta, hara nora iritsi garen, gure herria gehiago ezagutzera eta biltzen ditugun datu guztiekin erakusketa antolatzeraz! Zuek ere egiten al zenituzten horrelako gauzak txikiak zinetenean?*

*Beno bada, eskutitz honen bitartez jakin ezazue gure erakusketa Herriko Kultur Etxean (ikastolan) antolatu dugula, halako eta halako egun eta ordurako, eta inoiz ikusi duzuen politena izango dela.*

*Bestalde, eskutitza zuei bidaltzeko izan dugun aukera hau ezer eskatu gabe pasatzen utzi ezin dugunez, oraingo honetan, etxeko lan erraza eta polita jarriko dizuegu: etxean dituzuen argazkien artean, herrian ateratako zaharrenak aukeratu, eta, gaur egungo beste argazki batekin, ikastolara bidaltzea. Gutxienez bi behar ditugu liburuan itsasteko, baina gehiago bidaltzeko aukera baldin baduzue, bihotzez eskertuko genizueke.*

*Argazkietan berdin dio zuen familiako pertsonak agertzea, baina onena, posible bada, herriko txokoren bat agertzea izango litzateke, denboran zehar eman diren aldatetarako alderatzeko. Adibidez, zuen aitona-amonak herriko plazan, edota zuen birraitona astoa elizaren ondoan lotzen... Ados? Zer egingo genuke guk zuen laguntzarik gabe?*

*Erakusketan ikusiko garelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.*

*Maddalen eta Fermin*

Hola, compañer@s!

Como ya sabéis, gracias a nuestra supermáquina, hemos pasado unos días en la Edad Media y nos hemos dado cuenta de que la gran mayoría de nuestros pueblos y ciudades se fundaron en aquella época. Y aquí nos tenéis investigando los orígenes de nuestro pueblo/ciudad. Además hemos pensado organizar una exposición. ¿También organizabais vosotr@s exposiciones cuando erais pequeñ@s.

Bueno, pues mediante la presente os queremos comunicar que nuestro trabajo será expuesto en La Casa de Cultura / Ikastola / ... tal y tal día de tal a tal hora...

Por otra parte y ya que no podemos pasar sin pedirnos nada, os pondremos un trabajito para que colaboréis en la exposición (igual abrimos el txoko de los adultos): necesitamos las fotocopias de las fotos del pueblo más antiguas (espacios y personas —si son familiares mejor—) que tengáis a mano. Al menos necesitamos dos para pegarlas en el libro, pero si tenéis alguna más nos vendrá muy bien. ¿De acuerdo? ¿Qué podríamos hacer sin vuestra maravillosa ayuda?

Esperando encontraros en la exposición, nos despedimos.

Maddalen y Fermín

### **73. Herriko biztanleria lehen eta orain**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.*

Bi argazkiak itsatsiko ditugu liburuan: bata, antzinako jendea agertzen dena, eta bestea, gaur egungoa agertzen dena. Haur guztiek argazkiak itsatsi ondoren, taldean ikusiko ditugu, ikusten ditugun ezberdintasunei buruz hitz egiten ari garen bitartean: janzkera, garraioa, kaleak, etxeak, natura...

Argazki horiek fotokopiatu ondoren, erakusketarako beste panel batzuk osatuko ditugu.

Jarduera honen osagarri modura, adineko pertsona bat gelara ekarri eta bere bizitzan zehar herrian eta bizimoduan ikusi ahal izan dituen aldaketa nagusiei buruz hitz egiteko eska zeniezaiokete.

### **74. Irtenaldia. Herriko monumentuak ezagutzen**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Oraingoan, beste irtenaldi bat egingo dugu Erdi Arotik hona iraun duten edota oso antzinakoak diren eraikinak (elizak, harresiak, ateak, atakak, zubiak, etxeak, monasterioak, dorretxeak...) ezagutzeko eta datuak biltzeko. Gerta daiteke herri batean Erdi Aroko eraikinik ez egotea; kasu horretan, antzinako eraikinak aztertuko genituzke. Herrian gida zerbitzu hori eskaintzen bada edota gai horretan jantzita dagoen pertsonaren bat ezagutzen baduzue, ondo etorriko zaizue irtenaldia egiteko.

Bildutako datuekin, eraikinen gaineko panelak osatu daitezke erakusketarako.

Gogoratu herriko monumentuei buruzko informazio eta argazki ugari aurki daitekeela Interneten. Informazioa biltzeko jarduera hori aukera polita izan daiteke ikasleak Internet erabiltzen hasteko.

Jarduera hori ikasleekin egin aurretik, horien herriko monumentuei buruzko web-orrien bilatu behar ditu irakasleak; sarean murgildu aurretik, erreferentziazko helbideak eman behar zaizkie ikasleei, gal ez daitezten.

## **75. Herriko monumentuak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.*

Hurrek, bere liburuan, herriko monumentuei buruzko bi jarduera hauek egingo dituzte. Batetik, ezagutzen dituen eraikinak izendatu, eta bestetik, horietako bat aukeratu ondoren, argazkia edota marrazkia itsatsi eta horri buruz dakitena idatzi (panelak erabil ditzakete lana errazteko).

## **76. Monumentuak margotzen**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Hurrek, ezagutu ditugun monumentu esanguratsuen artean bat edo gehiago aukeratuko dituzte. Lanean hasi aurretik, eraikinaren behaketa bideratuko dugu eta behar adina denbora hartu prozesua biribiltzeko. Lana kalean egin beharko dutenez, paperaren neurriko (zuek erabaki neurria) karpeta edo egurren bat eraman dezatela, eroso marrazteko.

Margotzeko, hainbat teknika proposatuko dizkiegu:

- arkatzez soilik
- arkatzez eta margoz
- argizariz

Egindako marrazki guztiak ere erakusketan kokatuko ditugu.

## **77. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Herri guztietan badago ere, ez da ibiltzen;  
oinak sendoak izanik ere,  
ez da inoiz mugitzen.

(etxea)

Txiliku

Gizakiak egiten nau.

Gizakiak apaintzen nau.

Gizakiak berotzen nau.

Gizakiak teilaz estaltzen nau.

(etxea)

Xabier Etxaniz

## **78. Gure etxearen marrazkia eta planoak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.*

Ikaslearen liburuan bi marrazki egiteko espazioa dugu: bere etxea kanpotik eta barruko planoak.

Etxearen planoak egitea nahiko zaila suerta dakieke hurrei. Horregatik, lehen pauso gisa, arbelean, denon artean gelako planoak egingo dugu.

Dagoeneko beraien etxearen planoak egiteko arazo gutxiago izango dute, baina, nahi izanez gero, gurasoekin batera etxean egin dezaten proposa diezaiekegu.

## 79. Olerkia

*Lan egiteko era: Talde handian*

Argi asko sartzen da,  
ez da leku iluna.  
Baditu leihoak,  
badu atea  
eta badu komuna.  
Hormetan marrazki asko:  
katua, txoria eta behi adarduna.  
Ez da handia, baina bai polita  
gure txoko, txiki, txukuna.

Joxan Ormazabal

## 80. Gure etxearen deskribapena

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*  
*Materiala: Lan koaderno, 23. or.*

Bakoitzaren etxearen marrazkia eta barruko planoak egin ondoren, unitate honetan zehazki lantzen aritu garen testua osatzeari ekingo diote, norberaren etxearen deskribapena. Ahoz, unitatearen hasieran landutako egitura gogorarazi eta bizigabea den elementu horri egin beharko genizkiokeen egokitzapenak eztabaidatuko ditugu guztion artean.

- *Nola izan daiteke aurkezpena kasu honetan? (Zein herri edo kaletan kokatuta dagoen, zenbakia, solairua...).*
- *Kanpoko itxura.* Zenbat solairutako etxea den, zerez egina dagoen, fatxada nola dagoen margotuta, behealdean zer-nolako dendak dituen, solairuz solairu igoko gara teilatura iritsi arte. Teilatuak nolako teilak dituen, tximiniak dituen ala ez, zenbat...
- *Etxearen barrualdea ere deskribatuko dute (egindako planoan oinarritu daitezke).* Zer gela dituen, argitsua ote den...
- *Eta, noski, eraikin baten izaera deskribatzea erraza ez denez (posible da, baina gehiegi konplikatzea litzateke), haurra etxean nola egoten edo sentitzen den esan dezan animatuko dugu: goxo, lasai, alai, babestuta...*

## 81. Herriko pertsona ospetsuak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or.*

Ezagutzen dituzten pertsona ospetsuen izenak idatzi ondoren, haur bakoitzak bat aukeratu beharko du eta berari buruz dakien guztia idatzi. Lortu dugun informazioa, beharrezkoa izanez gero, entziklopediarekin konpara dezakegu.

Informazioa Interneten ere aurki daiteke; baina gogoan izan irakasleak bideratu behar duela bilaketa, ikasleak sarean ez daitezten gal.



Ikasleek, jasotzen duten informazioarekin, aurkezpen digital laburrak presta ditzakete, gero beste ikastoletako ikasleekin trukatzeko.

Liburu digitalean eta *txanela.net* webgunean eskaintzen den dokumentuan, Maddalenen herriko pertsona ospetsu baten aurkezpentxoak dator, eredu gisa erabiltzeko.

Beste jarduera batzuk ere egin ditzakegu pertsonaia ospetsuen inguruan:

- *Ba al dago herrian herriko pertsona ospetsuren baten izena daraman kalerik, enparantzarik...?*
- *Herriko kaleen izenei erreparatuz, ezagutzen ez genituen beste pertsona ospetsu batzuk izan al dira herrian?*
- *Ba al dago herriko txokoren batean pertsona baten estatuaren bat, edota plakaren bat? Zein izan ziren pertsona horiek? Zergatik egin zitzaizkien estatua horiek?*
- ...

## **82. Herriko festak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.*

Gure herria gehiago ezagutzen bukatzeko eta erakusketari amaiera emateko, herrian ospatzen ditugun festei erreparatuko diegu. Ikaslearen liburuan, herrian ospatzen diren festak zerrendatu beharko dituzte haurrek eta gogokoena zein duten adierazi. Ondoren, Joxan Ormazabalen olerkia irakurriko dugu.

Erakusketarako, berriz, herrian ospatzen ditugun festen argazkien bilduma egin dezakegu, “MUNDUAN EZ DAGO FESTARIK GABEKO HERRIRIK!” izenburupean.

## **83. Olerkia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Herriko festetan  
gaueko hamaiketan  
lehertu da suziria.  
Ziiuuuu...fit!  
Zirti zarta zirt!  
Bete da hotsez  
gaueko isiltasuna  
eta kolorez iluntasuna.  
Zirti zarta zirt!  
Hots, kolore, ke.  
Ziu fiu fit!

Joxan Ormazabal

#### **84. Erakusketaren muntaia eta gonbidapenak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Dagoeneko dena prest daukagunez, Kultur Etxera dena eraman eta hurrekin batera erakusketa antolatzea besterik ez zaigu gelditzen. Sarreran jar ezazue ikusleen iritziak eta iradokizunak biltzeko liburuxka.

Nahiko estu eta larri ibiliko zarete denboraz hori guztia prestatzeko. Halere, ahal baduzue, polita izan daiteke herriko alkateari, zinegotziei eta pertsona ezagunei gonbidapen bat bidaltzea, gure erakusketa ikustera joan daitezen.

#### **85. Jolaserako abestia: Ingurumika**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa/Irakurgaiak 2, 31. or.*

Unitatea alai eta pozik bukatzeko, jolaserako abesti hau dantzatuko dugu. Nola jolasten den? Irakurgaietan duzu erantzuna!

#### **86. Sintesia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.*

Beti bezala, unitatea bukatzen ari garen une honetan, sintesi-lana egiteko, galdera batzuk proposatzen dizkiegu haurrei, erantzun ditzaten. Atzera begira ezazue, liburua erabili eskuartean, orriz orri ikusi, hitz egin, balioespenak egin...